

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Epatzeko iragarkia 91/2020 prozedura laburtura

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak 49.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, argitara ematen da Maria Inmaculada Rivas Lopezek 91/2020 administrazioarekiko auzi errekurtsio laburtua jarri eta berorren espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1. zenbakiko Epaitegira bidali duela. Hain zuzen ere, GOFeren 2017ko LEPekeko Administrazio Bereziko eskalan, azpieskala teknikoa, klase teknikoa/laguntzailea, erizaintzako laguntzailea karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuari dagokion bigarren ariketaren behin betiko emaitzak argitaratzearen aurka jarri du errekurtsio hori.

Ohartarazten da ezen iragarki honen bidez epatu egiten dela prozeduran interesa duen oro autoetan agertu eta pertsonatu dadin. Horretarako, bederatzi egun izango ditu, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 3a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS